

Nélida Zaitegi, lehendakaria
Xabier Aizpurua
Josean Bueno
Juan Carlos Jauregui
M^a Teresa Ojanguren
Mikel Pagola
Begoña Pedrosa
Ismael Redondo
Eva Blanco, Idazkari teknikoa

18/08 IRIZPENA

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2018ko irailaren 20ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena dekretu proiektu honi buruz: Fisioterapeuta, Terapeuta okupazional, Hezkuntza-laguntzako espezialista, Transkribatzaile edo materialaren

egokitzailerik eta Zeinu-hizkuntzako interprete kategorietan ordezkapenak egiteko hautagai-zerrendetako parte diren pertsonen lanpostuak esleitzeko prozedura arautzen duena, eta Fisioterapeuta, Terapeuta okupazional eta Hezkuntza-laguntzako espezialista kategorietan lan-kontratudun langile finkoei, mugagabe ez-finkoei eta bitartekoei ikastetxeen urteko esleipena egiteko prozedura ezartzen duena.

I.- AURREKARIAK

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko irakasle eta hezkuntza-arloko lan-kontratudun langileen hitzarmen kolektiboaren 7. artikulua berariaz jasotzen du lanaren antolakuntza Hezkuntza Sailaren ahalmena dela, eta langileek obligazioa dutela Hezkuntza Administrazioak adierazitako zerbitzuak emateko, dagokien lan-kontratuaren arabera.

1/1993 Legeak, otsailaren 19koak, Euskal Eskola Publikoari buruzkoak, bere 26. artikuluan xedatzen du hezkuntzari laguntzeko zerbitzuek, tartean, otsailaren 17ko 40/2009 Dekretuan araututako Berritzeguneak, lankidetzan jardungo dutela ikastetxeekin irakaskuntzaren kalitatea hobetze aldera, eta bere funtzioen artean baliabideak kokatzea jasotzen da, ikastetxeen eskura izan arren, izaeragatik edo dimentsioagatik, ikastetxeok ezin baititzakete eduki.

186/2017 Dekretuak, uztailaren 4koak, zeinaren bidez onartzen baita ikastetxeetan hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei laguntzeko irakasleak ez diren lan-kontratudun langileen lanpostuen zerrenda (akats-zuzenketa, 2017ko abuztuaren 29ko EHAAn), Hezkuntza Saileko hezkuntza-langileen lanpostuak eratzen ditu, tartean, Hezkuntza-laguntzako espezialistak, Fisioterapeutak eta Terapeuta okupazionalak, hainbat destinitara atxikita, besteak beste, zonako Berritzeguneetara. Zonako Berritzegune bakoitzak dagozkion funtzioak gauzatzen dituen lurralde-eremua da otsailaren 17ko 40/2009 Dekretuak, Berritzeguneen egitura, antolaketa eta funtzionamendua arautzen duenak, Berritzegune bakoitzarentzat ezarritako lurralde-barrutiari dagokiona.

II. EDUKIA

Dekretu proiektu honek 3 kapitulutan banatutako 20 artikulua, 2 xedapen gehigarri eta azken xedapen bat ditu.

I. Kapituluak Xedapen Orokorrei buruzkoa da (1-3 artikulua) eta bertan aipatzen dira arauaren xedea, aplikazio-eremu subjektiboa eta datu pertsonalen tratamendurako irizpideak.

II. kapituluak (4-14 artikulua) ezartzen du zein den ikasturtea hastean hautagai-zerrendan dauden pertsonekin bete beharreko lanpostuen esleipen-prozedura. Artikulu horietan arautzen dira parte-hartzaileak eta eska daitezkeen betekizunak, parte hartzeko modua, eskaerak eta lanpostuak esleitzeko irizpideak.

III. kapituluak (15-20 artikulua) aipatzen du zein prozedura jarraitzen den ikastetxeak esleitzeko Zonako Berritzeguneetako lanpostuetako langileei, bai lan-kontratu finkoa dutenei (17. art.), bai bitartekotasun lan-kontratuak dituztenei edo bai lan-harreman mugagabe ez-finkoa dutenei (18. art.). 20. artikulua prozedura telematikoa arautzen du.

Lehen xedapen gehigarrian lantzen da lantokiaren eta bizitokiaren arteko distantzia, eta bigarrenean, berriz, lurralde historikoa, destinoa eta lanaldi mota aldatzeko aukerak.

Azken xedapenak dio noiz sartuko den indarrean araua.

III. BALORAZIOA ETA PROPOSAMENAK

Agindu proiektu honek bi prozedura desberdin arautzen ditu:

- Fisioterapeuta, Terapeuta okupazional, Hezkuntza-laguntzako espezialista, Transkribatzaile edo materialaren egokitzaile eta Zeinu-hizkuntzako interprete kategorietan ordezkariak egiteko hautagai-zerrendetako parte diren pertsonen lanpostuak esleitzeko prozedura;
- Fisioterapeuta, Terapeuta okupazional eta Hezkuntza-laguntzako espezialista kategorietan lan-kontratudun langile finkoei, mugagabe ez-finkoei eta bitartekoei ikastetxeen urteko esleipena egiteko prozedura, lanpostu horiek Zonako Berritzeguneen baitakoak direlarik.

Lehen kasuan, orain arteko prozedura presentziala izan da, beraz, positiboki baloratzen dugu hemendik aurrera telematikoki egin ahal izatea, horrek hobetu egin ditzakeelako prozeduran parte har lezaketzen pertsonen parte-hartze baldintzak.

Bigarren prozedurari dagokionez, Kontseiluak positiboki baloratzen du ikastetxeak esleitzeko prozesuko irizpideak arautzea langile horientzat.

Artikulei buruzko oharrak

- 12.2 artikulua hauxe dio: HLEA egiaztatua duten pertsonen HLEAko eta derrigortasun-data beteko lanpostuak besterik ez dituzte eskuratuko. **Era berean, 1. hizkuntza-eskakizuneko eta derrigortasun-datarik gabeko lanpostuak ere eskura ditzakete, baldin eta aukera horrek ez badie eragozten hizkuntza-eskakizuna egiaztatu gabe duten eta atzerago dauden pertsona hautatuei lanpostua eskuratzea.**

Ulertzen dugu aurreikuspen horri esker HLEA profila ez duten pertsonen ere aukera izan dezaketela lanpostu bat eskuratzeko. Baina HLEA duten pertsonen betetzen dituzte datarik gabeko HE1 lanpostuetan sartzeko baldintzak, horregatik uste dugu erabakia baztertzaila dela eta ezabatzea proposatzen dugu.

- 17. artikulua zehazten du zein den lan-kontratu finkodun pertsonen ikastetxea esleitzeko prozedura; artikulua 3. atalean jasota daude berdinketak desagiteko irizpideak, eta horietan azkena da “adinez nagusi” izatea.

Kontseiluak irizpide hori ezabatzea proposatzen du, zeren planteatzen den egoera gertagaitza bada ere, ulertzen du horrek ezin duela inoiz izan irizpide bat, eta hobe litzatekeela azken irizpide bezala kontuan hartzea hautaketa prozesuetako alfabetoaren ordena (zozketatik ateratako letratik hasita).

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbo, 2018ko irailaren 20a

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: EVA BLANCO OCHOA

Ikus-Onetsia

LEHENDAKARIA

Sin.: NÉLIDA ZAITEGI DE MIGUEL

HEZKUNTZA SAILBURU ANDREA